

KARRIKAK, EUSKARAZ

Ipar Euskal Herriko karriken izenak, euskaraz eta zuzen idatziak

 **EUSKARA** / Haritz Larrañaga

Ipar Euskal Herrian zuntz optikoa instalatzeko karriken izendegia berritu behar dela baliatuz, zenbait udalerri kale izenak euskaratzen ari dira. Euskal Hirigune Elkargoaren laguntzari esker, karriken izenak euskaraz eta zuzen idatzita ikusi ahal izango dira aurrerantzean.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako 158 herri aurkitzen dira Euskal Hirigune Elkargoaren kudeaketa eremuan eta horietatik 65 herritan jada karriken izendegia euskaratzeko urratsak egin dituzte. Duela bi urtez geroztik, Hizkuntza Politikako Zuzendaritzan dagoen itzulpen zerbitzua jo eta su ari da euskal jatorrikoak izan arren, frantsestuak izan ziren karriken izenak zuzentzen.

Ehun herri baino gehiagotan izendegia euskaratzeko aurreikuspena dute zuzenketa lanetan ari diren bi euskara teknikariek. Mattin Bacho da euskara teknikarietako bat eta haren esanetan, «100 eta 150 herri artean egingo ditugu, zeren ikusten dugu herriek aukera horren berri izaten dutenean gugana jotzen dutela eta, horrela pixkanaka, gero eta

udalerri gehiago ari dira batzen».

Euskara teknikariak Ipar Euskal Herriko herrien izendegiak aztertzen ari dira herriko etxeetako arduradunekin eta Euskaltzaindiarekin batera. Zehatzago, euskal grafiaren eta izenen jatorriaren berri izateko Euskaltzaindiko Onomastika (izen bereziak eta propioak aztertzen dituen hiztegi-gintza) batzordearekin ari dira elkarlanean. «Guk berreste eskaera luzatzen dugu eta ongi baldin badago Euskaltzaindiak onartzen du, jarraian gomen-dioa helarazten diogu herriko etxeari eta gero haiei dagokiegure gomendioa onartzen duten erabakitzea, baina gehienetan gure gomendioa entzuten dute eta izena euskaraz jartzea onartzen dute», azaldu du Bachok.

LANERAKO IRIZPIDEAK

Herriko etxeek laguntza eskatzen dietenean lehenik izendegizaharreko zerrenda eskatzen dute euskara teknikariek eta, ondoren, karrika eta bide izenak finkatzeko irizpideak ezartzen dituen Euskaltzaindiaren eskuliburua baliatuz lan egiten dutela esplikatu du Bachok. «Hor badira irizpideak, adibidez, jatorrizko hizkuntza errespetatu behar dela, beraz, 'Etxeberria' frantsesez ere 'Etxeberria' izkiriatu be-

Alboko irudietan, karriken eta herrien zenbait izen. Herri askotan kaleen izenak euskara zuzenean jartzeko ahalegina egiten ari dira eta aurreikusten da paisaia linguistikoa dezente aldatuko dela datozen hilabeteetan.
Guillaume FAUVEAU - Isabel MIQUELESTORENA



Euskara teknikariak Ipar Euskal Herriko herrien izendegiak aztertzen ari dira herriko etxeetako arduradunekin eta Euskaltzaindiarekin batera

Zuntz optikoa ezartzeko helbideratze proiektuan etxe bakoitzak helbide izen arautu bat izan beharko du, zehatza eta eguneratua, karrika izen batekin eta zenbaki batekin

harko da, baina alderantziz, jatorrizko izena frantsesa bada, adibidez 'Bellevue', orduan frantsesezko grafia errespetatuz idatzi beharko da, alegia, 'Bellevue karrika'».

Karrika batzuek ez dute izen zehatzik eta horrelakoetan ere irizpide jakin batzuen arabera lan egin behar da. Honela azaltzen du Bachok halako kasuetan zein irizpide ezartzen duten: «Ipar Euskal Herrian maiz euskal jatorriko izena duen etxe baten izena izaten da helbidea, eta gauza bera gertatzen da herri txikietan bide eta karrikekin, hau da, ez dute izenik, beraz halakoetan lekuko etxe zaharrenaren izena hartzen da, adibidez, eman dezagun 'Etxeberri' dela, orduan guk zera proposatuko genuke, euskaraz 'Etxeberriko bidea', eta frantsesez 'Chemin d'Etxeberri'».

Zuntz optikoa ezartzeko helbideratze proiektuan etxe bakoitzak helbide izen arautu

bat izan beharko du, zehatza eta eguneratua, karrika izen batekin eta zenbaki batekin, ondorioz karrika berriak eta izen berriak ezarri beharko dira, baina arazorik handiena gaizki idatzita ziren euskal jatorriko izenek ematen dute euskara teknikarien aburuz, «euskaldunak ere ohituta baitziren izena gaizki idatzia ikustera».

ALDAKETEN ONARPENA

Amikuzekoa da Bacho, hamar urtez Nafarroa Behereko euskara teknikari izan zen, eta duela bi urtetik Euskal Hirigune Elkargoan ari da lanean. Oso ongi ezagutzen ditu Ipar Euskal Herriko herriak eta baita herritarrak ere, horregatik aitortzen du jendea izen bat modu batera idatzita ikustera ohituta dagoenean zail egiten dela aldaketa proposatzea. «Onarpen soziala zaila da, ez dugulako astirik izan pedagogia lana egiteko. Herriko etxe-



ko arduradunekin hitz egiten dugunean gehienetan ohar-tzen dira, ulertzen dute eta gure aholkua onartzen dute, baina herritarrek lan hori egiteko denborarik ez dugu izan orain arte».

Pettan Aizager, berriz, Donapaleuko hautetsia da eta Mattin Bachorekin lanean aritu da azken hilabetetan herriko karriken izendegia euskaratzeko, eta Aizager ere bat dator euskara teknikariaren iritzia-rekin. Bere ustez, «pedagogia apur bat egin behar da jendea-ri aurrekoa gaizki zegoela azal-tzeko».

Donapaleun izendegi osoa euskaratzea erabaki zuten. Na-farroa Beherean dagoen Ami-kuze eskualdeko herriburuak ia bi mila biztanle ditu eta oso ezagunak diren plaza eta karriak ditu, «bada aurrerantze-an karriak bi hizkuntzatan izendatuak izango dira, baina izen bakarra izango dute, eta euskal jatorriko izen guztiak

zuzen idatziak izango dira», nabarmendu du Aizagerrek.

Aurrerantzean karriketako afixetan emango den aldaketa ulertzeko honako adibidea jar-tzen du Donapaleuko haute-tsiak: «Lehen 'rue du Marche' bazen, karrika hitza gehitzen zioten, hau da, 'rue du Marche soilik 'karrika' hitza agertzen zen euskaraz, orain ordea, 'rue du Marche, Merkatu karrika' agertuko da afixan».

Kontuan hartu behar den beste gauza bat da euskal jato-rriko izenak frantses grafia erabiliz idatziak zirela, alegia, frantsesek irakurtzeko mo-duan idatziak ziren kaleen ize-nak, hortaz lehengo izen bera izango dute karrika askok, bai-na aurrerantzean zuzen ida-tziak agertuko dira afixetan.

Aizagerrek alderaketa bat egiten du: «Euskara ofiziala balitz eta guk 'oignon' hitza idatziko bagenu esaten dugun moduan, alegia 'oñon', frantse-

sek ez lukete onartuko ezta? Ba gauza bera euskararekin, haiek esaten duten moduan idatziak ziren karrika izenak, baina ez ziren ongi idatziak. Euskarak ere baditu bere lege-ak eta errespetatu egin behar dira».

Hona hemen Donapaleun aldatuko diren izen batzuen adibideak. Lehen "Place du Foi-rail" izena zuen herriko plaza nagusia aurrerantzean "Abere merkatu plaza" izango da. "Rue Jeanne d'Arc" zena, aurre-rantzean, "Joana Arkokoa ka-rrika" izango da. Beste karrika batean "Rue du Jeu de Paume", "Laxo karrika" irakurri ahal izango da. Eta "Chemin d'Ito-rrotch" zena, aurrerantzean "Itorrotz bidea" izango da.

EUSKARAREN PRESENTZIA HANDITUZ

Donapaleun izenik ez zuten beste 30 karrika izendatuko dituzte eta herritarrei izenak proposatzeko aukera eman zien udalak. Gauzak honela,

izendegi berria osatua da, bai-na oraindik izenak afixetan izkiriatu eta karriketan jar-tzea falta da. Aizagerrek adie-razi duenez, «Donapaleuko koloreak urdina eta zuria dira eta Nafarroako sinbolo bera dute, katez osatutako ikurrina gainean koroarekin, eta ikur hori ere irudikatuko da panel berrietan, diseinatze lanetan ari gara, baina arazorik ez ba-da, otsail aldera panelak ezar-tzeko moduan izango dira».

Euskal Hirigune Elkargoak panelak ezartzeko dirulagun-tza eman die udalerriei, baina aldaketarik handienak lagun-tza teknikoaren ondorio izan-go direla esan daiteke. Besteen artean, langileentzako forma-kuntza ere eskaini du Euskal Hirigune Elkargoak. Esaterako, herriko etxeetako langileen artean diagnosi bat egiten du-te haien maila neurtzeko eta euskararen jakintza zenbate-koa den neurtzeko. Helburua herritarrei euskaraz erantzun ahal izateko bitartekoak es-kaintzea da eta, ondorioz, kasu batzuetan diagnosiaren oste-an postu aldaketak eman dai-tezke. Donapaleun adibidez, euskaraz ongi dakien udal-tzain bat idazkari izatera pasa da.

Aldaketa horien guztien emaitzak laster ikusiko dira Ipar Euskal Herriko karrike-tan. Jada herrien sarrera-irtee-retako paneletan izenak euskaratu dituzte hainbat lekutan, Getarian kasu, eta ka-rrikez harago, zerbitzu publi-koa eskaintzen den eremu ani-tzetan afixak euskaraz jartzeko itzulpen zerbitzu bat ere eskaintzen du Euskal El-kargoak. Ondorioz, eta itxura guztien arabera, euskararen presentziak pixkanaka dago-kion lekua hartuko du Ipar Euskal Herrian.